

## OHIKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN AKTA

**Bilera-zenbakia:** 2023ICGO0010

**Eguna:** 2023-09-26

**Ordua:** 18:30 – 18:43

**Tokia:** alkatetza

### Bertaratuak

- Xabier Urdangarin Lasa ..... Astigarragako EH Bildu
- Ainara Vazquez Martinez ..... Astigarragako EH Bildu
- Naroa Del Orden Otero ..... Astigarragako EH Bildu
- Maria Otaegi Velez ..... Astigarragako EAJ-PNV
- Patxi Suarez Perez ..... Udal talde euskal sozialistak

### Bertaratu ez direnak

### Idazkaria

- Kontxi Urdampilleta Santamaria

### Aztergaiak

1. 2023ko uztailaren 18ko akta onartzea.
2. Euskararen erabilera sustatzea helburu duten ekimenak garatzeko dirulaguntzen oinarriak eta deialdia.
3. Garapenerako lankidetzeta programaren laguntzak ematea.
4. Kultura eta gazteriako sailetako publizitate eta komunikazio euskarriak diseinatu eta inprimatzeko zerbitzu-kontratuaren esleipena.
5. Informazio, galdera eta eskariak.

### Esan-eginak eta erabakiak

#### **1.-2023ko uztailaren 18ko akta onartzea.**

Akta aho batez onartu da.

#### **2. Euskararen erabilera sustatzea helburu duten ekimenak garatzeko dirulaguntzen oinarriak eta deialdia.**

Alkateak adierazi du dirulaguntza lerro hau urtero ateratzen dela, eta horren helburua azaldu ondoren, Euskara eta hezkuntza batzorde informatiboko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

***Lehen.***- Onartzea Euskararen erabilera sustatzea helburu duten ekimenak garatzeko dirulaguntza leroaren oinarriak.

***Bigarrena.***- Egitea diru-laguntzaren deialdi publikoa.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

### 3. Garapenerako lankidetzaren programaren laguntzak ematea.

Alkateak azaldu du laguntza lerro honen deialdia ere urtero egiten dela eta eskatzaileak beti antzeko elkarteak izaten direla. Ondoren, Gizarte Zerbitzuak eta Adineko pertsonen batzorde informatiboko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

**Atal bakarra:** jarraian adierazitako dirulaguntzak onartzea:

- *INGENIERIA PARA LA COOPERACIÓN: 5.000 €.* “Kongoko RD-eko Idjwi uhartean pobrezia-aren aurkako borroka eta emakumearen ahalduntzea. Nyabunyunyi ikastetxea berreraikitzea, higiena-eta osasun-instalazioen hornidura, higiena menstrual normalizatzeko eta hezkuntza-komunitateak kudeaketan parte hartzea. 2. FASEA proiekturako.
- *CHIAPAS: 10.000 €* “¡Ganando espacio! Placas solares para asegurar el suministro eléctrico continuo en el centro de transformación de alimentos. Santa Rosa y Veinte de Noviembre; Huixtán, Chiapas” proiekturako.
- *AMAP-ASOC. MUNDIAL: 9.998,38 €* “Fortalecimiento del derecho a la alimentación de la población kaqchikel y mejora de las condiciones económicas mediante la generación de ingresos a través de la producción pecuaria en Joya Grande, Zaragoza, Guatemala” proiekturako.
- *ACTIVOS POR UN MUNDO SOLIDARIO: 10.000 €* “Nosotros/as También Podemos”. Consolidación modelo de cogobernanza inclusivo “proiekturako.
- *ULLS DEL MON/MUNDUKO BEGIAK: 4.750 €* “Mejora del acceso y disponibilidad al tratamiento quirúrgico oftalmológico público, descentralizado, equitativo y de calidad en los Departamento de Oruro y Tarija (Bolivia)” proiekturako.
- *FUNDACIÓN BONAL: 5.000 €* “Mejora de las condiciones de higiene y de salud en el centro para niñas y niños con discapacidad de Elsie Gaches Village” proiekturako.
- *EUSKAL FONDOA: 7.745,75.- € (proiektua zehaztu gabe).*

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

Alkateak azaldu du, laguntzak onartzearekin horien %70a ordaintzen zaiela, eta laguntza zuritu ondoren gainerako %30a. Horren harira Maria zinegotziak galdetu du zer egiten duen udalak laguntzak justifikatzen ez badira, eta alkateak azaltzen dio, jasotakoa zenbatekoa eta horien interesak itzuli beharko lituzketeela, baina beti saiakera egiten dela horiek behar bezala justifika dezaten, eta egin ezean laguntza itzuli arazten zaiela, baina azken hori oso gutxitan gertatu dela.

### 4. Kultura eta gazterriko sailetako publizitate eta komunikazio euskarriak diseinatu eta inprimatzeko zerbitzu-kontratua.

Alkateak azaldu du kontratazio espediente hau 2 loteetan banatu zela (1. lotea kultura saileko argitalpenak eta 2. lotea gazteria sailekoak) eta C kartazalak irailaren 5ean ireki zirela, baina bien kasuan eskaintzak nabarmenki baxutzat jo zinez, horiek justifikatzeko eskatu zitzaizela enpresari, eta justifikazio horrek udal teknikarien aldeko txostena jaso duela.

Ondoren, kontratazio mahaiako irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

**Lehena..** Astigarragako Publizitate eta komunikazio euskarriak diseinatzeko eta inprimatzeko zerbitzuaren 2 loteak PRODUCCIONES MIC SL enpresari esleitzea, 1. lotea (kultura saila), 8980



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

*eurotan (bez kanpo), lehiaketa honetan punturik gehien lortu duen enpresa izan baita, hain zuzen, 96,50 puntu eta 2 lotea (gazteria saila) 895 eurotan (bez kanpo), lehiaketa honetan punturik gehien lortu duen enpresa izan baita, hain zuzen, 97,50 puntu. Esleipena baldintzatuta egongo da bigarren atalean adierazitakoari betetzera.*

**Bigarrena.**-Enpresa esleipendunak, akordioa jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita 10 laneguneko epean, baldintza plegu administratiboen 25. klausulan adierazten diren agiriak aurkeztu beharko ditu eta aldez aurretiko baldintzak egiaztatu; halaber, Udaleko Diruzaintza Sailean, lote bakoitzaren behin betiko bermea jarri beharko du, zenbateko hauekin:

1. LOTEA.449 €
2. LOTEA: 44,75 €

**Hirugarrena.**- Erabaki hau jakinaraztea prozeduran interesatu izan diren guztiei, eta argitaratzea udaleko kontratatzailearen profilean.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

### 5..Informazio, galdera eta eskariak

Alkatak adierazi du urriaren 3ko 8:30ean kontratazioa mahaia dagoela ibai-parkea handitzeko kontratazio-espeditarean C kartazalak irekitzeko, eta asmoa dela urriaren 5ean tokiko gobernu batzarra egitea, obra-kontratua esleitzeko.

Bestalde, adierazi du goizean egindako kontratazio mahaian argiteria publikoko hainbat koadroetako luminariak LED teknologiarara ordeztzeko kontratazio-espeditarean C kartazalak ireki direla, eta esleipen hori alkatearen dekretuz ebatzi dela. Gaineratu du, kontratu honekin lortuko dela ia hirilurreko argiteri publikoko ia luminari guztiak LED teknologikoak izatea.

Alkateak bilkura amaitutzat eman du, eta nik, Idazkariak eztabaidatua eta erabakitakoa jasota gera dadin honako agiria egin dut

Astigarragan, 2023ko irailaren 26an

Kontxi Urdampilleta Santamaria  
Ordezko idazkaria